## AKTEA/16

## BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
## (2026-06-30)

| | |
|---|---|
| **Batzarraren izaera:** | Ohikoa |
| **Deialdia** | 1. deialdia |
| **Data:** | 2026-06-30 (Asteartea) |
| **Lekua:** | Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia |
| **Hasiera-ordua:** | 08:35 |
| **Amaiera-ordua:** | 08:46 |
| **Alkate-Presidentea:** | NEMEH SHOMALY NADIA |
| **Batzordekideak:** | CARUEZO UGALDE MAITE<br>ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA |
| **Bertaratu ez direnak:** | URIARTE ANASAGASTI VICTOR<br>GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE<br>ORTUZAR BUTRON XABIER |
| **Idazkaria:** | BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON |

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Aztergaiak**

1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-06-23 TGB (15)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3.- CEIP San Francisco HLHI ikastetxean irisgarritasun eta suteen aurkako segurtasuneko obrak egiteko obra lizentzia onartzea.

4.- Bermeoko Aurrekoetxea 14 zenbakiko eraikineko barruko patioetako fatxaden saneamendurako eta SATE sistema instalatzeko obra-lizentzia onartzea.

5.- Talako Andra Mari Auzoa 23ko eraikinaren iparraldeko atzeko fatxada saneatu eta kanpoko isolamendu termikoko sistema (SATE) jartzeko obra lizentzia onartzea.

6.- Bermeoko Adubidxe 17-19 eraikineko atzealdeko fatxadako begiratokietako leihoak ordezteko obra-lizentzia onartzea.

7.- Bidebarrieta kaleko 12 zenbakiko eraikinean estalkiaren birgaitze-lanak egiteko obra-lizentziaren gehiketa onartzea.

8. - 2026. Errotuloak euskaraz ipinteagaitik dirulaguntzak onartzea.

9.-Alkatetza dekretuen berri emotea. Ekainak 15-19.

10.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

**1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-06-23 TGB (15)**

Bertaratutako batzarkideek 2026ko ekainak 23ko 15/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

**2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.**

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik ez daukatela adierazi dute.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

## 3.- CEIP SAN FRANCISCO HLHI IKASTETXEAN IRISGARRITASUN ETA SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNEKO OBRAK EGITEKO OBRA LIZENTZIA ONARTZEA.

**Xedea**

CEIP San Francisco HLHI ikastetxean irisgarritasun eta suteen aurkako segurtasuneko obrak egiteko obra lizentzia.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2025eko maiatzaren 23an, sarrera eman zitzaion Bermeoko Udalaren Erregistro Orokorrean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurkeztutako obra-lizentzia eskaerari, CEIP Bermeo San Francisco HLHI ikastetxean irisgarritasuneko eta suteen aurkako segurtasuneko obrak egiteko.

Espedientearen arabera, 2025/00007213, 2025/00007214 eta 2025/00007215 sarrera-erregistroekin batera honako dokumentazioa aurkeztu da, besteak beste:

- “Proyecto Básico de Obras de Accesibilidad y Protección Contra Incendios” izeneko proiektua.
- Dokumentazio grafikoa.
- Aurrekontua eta dokumentazio osagarria.

Bigarrena.- 2025eko urriaren 31n, exekuzio-proiektua aurkeztu zen, memoria, planoak, baldintza-agiria, aurrekontua, hondakinen kudeaketa azterlana, segurtasun eta osasun azterlana eta gainerako dokumentazio teknikoa barne.

Hirugarrena.- 2026ko martxoaren 18an, 2026/00003517 sarrera erregistroaren bidez, dokumentazio osagarria aurkeztu zen, lizitazio prozedura hasteko udal baimenaren ziurtagiria eskatuz.

Laugarrena.- Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua bostehun eta bi mila ehun eta laurogeita hamalau euro eta laurogeita zortzi zentimokoa da (502.194,88 €).**

Bosgarrena.- 2026ko ekainaren 10ean, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Seigarrena.- 2026ko ekainaren 23an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2026ko martxoaren 18an aurkeztu

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

zen azken dokumentazio osagarria; ondoren 2026ko ekainaren 10ean egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*"Aurkeztutako memoriaren arabera, jarduketak CEIP Bermeo-San Francisco HLHI ikastetxeko E1-E2 eta E3-E4 eraikinetan egiten dira.*

*Proiektuak, besteak beste, honako jarduketak aurreikusten ditu:*

- *Ebakuaziorako kanpoko eskailera metaliko berriak eraikitzea.*
- *Suteen aurkako babes-instalazioak berritzea.*
- *BIEak, hidranteak, detekzio-sistema, alarma-sistema eta seinaleztapena instalatzea edo egokitzea.*
- *Komun egokitu berriak egitea.*
- *Barandilak eta pasamanoak egokitzea.*
- *Kanpoko urbanizazioaren zati baten egokitzapena.*
- *Irisgarritasun-baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren obra osagarriak."*

<u>Bigarrena</u>.- 2026ko ekainaren 10ean, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

***"<u>4. Proposamena:</u>***

*Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen kalterik gabe, teknikari honek aldeko txostena ematen du CEIP Bermeo-San Francisco HLHI ikastetxean irisgarritasun eta suteen aurkako segurtasuneko obrak egiteko obra-lizentzia ematearen alde.*

*Lizentzia, hala badagokio, ondorengo baldintzen menpe emango da:*

***<u>5. Lizentziaren baldintzak</u>***

***5.0.– Lizentziaren eraginkortasunerako aurretiazko baldintzak***

*- Justifikatu beharko da aurreikusitako ur-hornidurak indarreko araudiak eskatzen dituen emari eta presio baldintzak betetzen dituela. Baldintza horiek udal hornidura-sarearen bidez bermatzen ez badira, horiek betetzeko beharrezkoak diren neurri osagarriak aurreikusi eta justifikatu beharko dira.*

*-Proiektatutako detektagailu automatiko berriak, eskuzko alarma-pultsagailuak eta gailu akustikoak ikastetxean dagoen suteen detekzio eta alarma instalazioan*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

integratuko direla justifikatu beharko da. Horretarako, elementu berriak konektatuko diren suteen aurkako zentralaren identifikazioa egin beharko da, haren gaitasun erabilgarria egiaztatu beharko da, eta lehendik dauden ekipamenduen eta proiektatutako ekipamenduen arteko bateragarritasun teknikoa justifikatu beharko da.

-Aurreikusitako handitzeak lehendik dagoen detekzio eta alarma zentralaren aldaketa edo ordezkapena eskatzen badu, dagokion dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da, behin betiko hartutako soluzioa zehaztuz eta haren egokitasuna justifikatuz.

### 5.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (ICIO), dagokion tasa eta aplikagarriak diren gainerako tributuak izapidetu eta likidatu beharko dira, indarrean dagoen araudi fiskalean ezarritakoaren arabera, hala badagokio dagokion hobaria edo salbuespena aplikatuz.

-Obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren izendapena aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsita edo administrazio eskudunak gainbegiratuta, hala badagokio.

-Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen izendapena aurkeztu beharko da, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan aurreikusitako kasuetan.

-Obraren hasieraren berri eman beharko zaio Bermeoko Udalari, dagokion hasiera-komunikazioaren bidez.

-Jabari publikoaren okupazioa beharrezkoa bada, dagokion baimen edo lizentzia independentea izapidetu beharko da obrak hasi aurretik. Jabari publikoan aurreikusitako okupazio guztiak jasoko dituen obraren ezarpen-plano xehatua aurkeztu beharko da, bertan zehaztuz hondakinak biltegiratzeko eremuak, edukiontziak, obrako etxolak, higiene- eta ongizate-instalazioak, material-pilaketak eta gainerako bitarteko osagarrien kokapena.

-Udal jabari publikoaren okupazioa dagokion udal-ordenantzaren arabera izapidetu beharko da, sustatzaile den administrazioari aplikagarri izan dakizkiokeen salbuespen edo zerga-onuren kalterik gabe.

-Obrak hasi aurretik Segurtasun eta Osasun Plana onartu beharko da, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

-Obrak sei hilabete baino gehiago iraungo balu, Euskal Autonomia Erkidegoko

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 44.2 artikuluaren arabera eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da.*

***5.2. Obra gauzatzeko baldintza teknikoak***

*-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuaren arabera gauzatuko dira. Proiektuan jasotako soluzioak aldatzen dituen edozein aldaketa esanguratsu Udalari jakinarazi beharko zaio aurretiaz, haren balorazioa eta, hala badagokio, baimena lortzeko.*

*-Egokitutako komunek **laguntza edo larrialdi-dei sistema irisgarria izango dute**, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan eta UNE 170001-2 arauan ezarritakoaren arabera, arreta iraunkorra duen gune batekin edo ikastetxeak aurreikusitako kudeaketa-sistemarekin komunikazioa bermatuz.*

*-Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. Eranskineko 3.7 apartatuko 4. puntuan ezarritakoaren arabera, **E3 eta E4 eraikinetarako sarbidea ematen duten kanpoko eskailerek bitarteko pasamanoak izango dituzte**, eskaileren zabalera 2,40 metro baino handiagoa baita.*

*-Suteen aurkako instalazio guztiek bete beharko dituzte Suteen Aurkako Instalazioen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuan ezarritako preskripzioak, bai eta instalatutako sistema bakoitzari aplikatu beharreko UNE arauak ere.*

*-Eraikinaren kanpoaldean aurreikusitako suteen aurkako presio-taldea behar bezala babestutako armairu edo instalazio-eremu baten barruan kokatuko da, **mantentze-lanetarako irisgarritasuna**, eguraldiaren aurkako babesa eta baimenik gabeko manipulazioen aurkako segurtasuna bermatuz.*

*-Suteen aurkako instalazioei lotutako instalazio elektrikoak Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren eta suteen detekzio eta alarma sistemei aplikatu beharreko baldintza espezifikoen arabera gauzatuko dira.*

***5.3.– Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak***

*-Obra-lekuan, udal zerbitzu teknikoen eskura, lizentziaren kopia bat eta baimendutako proiektuaren ale bat egongo dira une oro, bai eta obran zehar onartutako edozein aldaketa, dokumentazio osagarri edo udal baimen ere.*

*-Obrak dagokion Zuzendaritza Fakultatiboaren zuzendaritzapean gauzatuko dira,*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*eta teknikari arduradunek lizentzian, baimendutako proiektuan eta aplikatu beharreko araudi tekniko eta sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla zainduko dute.*

*-Obrek dirauten bitartean ikastetxearen jarduera, erabilera eta funtzionamendu arrunta ahalik eta gehien bermatu beharko dira. Horretarako, Segurtasun eta Osasun Azterlanean eta dagokion Segurtasun eta Osasun Planean aurreikusitako sektorizazio, itxitura, seinaleztapen, babes eta antolaketa-neurriak ezarri beharko dira, jarduera akademikoaren eta obren arteko bateragarritasuna bermatzeko.*

*-Obren faseak aurkeztutako programazioaren arabera gauzatuko dira, une oro ikasle, irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langile zein gainerako erabiltzaileentzako segurtasun-baldintzak bermatuz.*

*-Obrek dirauten bitartean, eraikinetarako sarbideak, irisgarritasun-baldintzak, ebakuazio-ibilbideak, larrialdi-irteerak eta larrialdi-zerbitzuentzako sarbideak erabilgarri mantendu beharko dira une oro. Horretarako, obrako etxolak, edukiontziak, material-pilaketak, aldamioak, plataforma jasotzaileak eta gainerako bitarteko osagarriak kokatuko dira ikastetxearen funtzionamendu normala, segurtasuna, irisgarritasuna, ebakuazioa eta larrialdi-zerbitzuen jarduna oztopatu gabe. Baldintza horiek betetzea posible ez denean, behar bezala seinaleztatutako, babestutako eta indarreko araudiaren arabera egokitutako ordezko ibilbideak ezarri beharko dira.*

*-Segurtasun eta osasun arloan nahitaez bete beharko dira Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, bai eta Segurtasun eta Osasun Azterlanean eta dagokion Segurtasun eta Osasun Planean jasotako neurri guztiak ere.*

*-Sortutako eraikuntza eta eraispen hondakinak aldizka erretiratu beharko dira, lan-eremuak eta inguruko espazioak orden, garbitasun eta segurtasun baldintza egokietan mantenduz. Hondakin guztiak ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta baimendutako kudeatzaileari entregatu izanaren egiaztagiriak gorde beharko dira.*

*-Obren garapenean amiantoa edo hasieran aurreikusi gabeko beste material arriskutsuren bat antzemanez gero, lanak berehala eten beharko dira ukitutako eremuan, eta aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritako neurriak hartu beharko dira, dagokion dokumentazioa aurkeztu eta administrazio eskudunaren baimenak lortu aurretik.*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

**DOCUMENTO: 20261490962**
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*-Udal zerbitzu teknikoek obra ikuskatzea ahalbidetu beharko da une oro, eta eskatutako dokumentazio tekniko eta administratiboa aurkeztu beharko da.*

*-Proiektuan aurreikusi gabeko gorabeheraren bat gertatuz gero edo aurreikusitako soluzio teknikoak aldatu behar badira, Udalari jakinarazi beharko zaio aldaketa gauzatu aurretik, dagokion balorazioa egin eta, hala badagokio, beharrezko baimena eman dezan.*

***5.4.– Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa***

*-Obra Amaierako Ziurtagiria aurkeztu beharko da, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatua, obrak baimendutako proiektuaren eta lizentzian ezarritako baldintzen arabera gauzatu direla egiaztatuz.*

*-Obraren azken likidazioa aurkeztu beharko da, egindako obraren benetako kostua jasotzen duena.*

*-Proiektuan aurreikusitako kalitate-kontrolaren dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatu beharreko araudiaren arabera.*

*-Eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketaren azken egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, hondakinak baimendutako kudeatzaile bati entregatu zaizkiola egiaztatuz.*

*-Suteen aurkako instalazioen instalazio-ziurtagiriak eta martxan jartzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Suteen Aurkako Instalazioen Erregelamenduaren arabera gaitutako enpresa instalatzaileek emanda.*

*-Instalazioak gauzatu dituzten enpresa baimenduen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.*

*-Suteen detekzio eta alarma sistemaren "as built" dokumentazioa aurkeztu beharko da, instalazioaren behin betiko egoera, ekipamenduen kokapena eta eguneratutako eskemak jasoz.*

*-Proiektatutako elementu berriak lehendik dagoen suteen aurkako zentralarekin integratu direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, zentralaren programazio, egokitzapen edo handitzearen ziurtagiriak ere bai.*

*-Suteen aurkako instalazioen erabilera eta mantentze-programa aurkeztu beharko da, baita instalatutako sistemak behar bezala kontserbatu eta erabiltzeko beharrezkoak diren eskuliburuak ere.*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Suaren aurkako babes pasiboko sistemen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, proiektuan eta araudian eskatutako prestazioak betetzen direla egiaztatuz.*

*-Obraren azken egoeraren argazki-erreportajea aurkeztu beharko da.*

*-Udal zerbitzu teknikoek, aplikatu beharreko araudiaren arabera, beharrezkotzat jotzen duten gainerako dokumentazio teknikoa, administratiboa edo sektoriala aurkeztu beharko da.*

***6. Ondorioak***

*Azaldutako guztia kontuan hartuta, teknikari honek aldeko txostena ematen du CEIP Bermeo-San Francisco HLHI ikastetxean irisgarritasun eta suteen aurkako segurtasuneko obrak egiteko obra-lizentzia ematearen alde, aurkeztutako proiektuaren arabera eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen menpe."*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko maiatzaren 23an egin zen eskaera, eta honako dokumentazioa aurkeztu zen:

- "Proyecto Básico de Obras de Accesibilidad y Protección Contra Incendios" izeneko proiektua.
- Dokumentazio grafikoa.
- Aurrekontua eta dokumentazio osagarria.

Ondoren, 2025eko urriaren 31n, exekuzio-proiektua aurkeztu zen, memoria, planoak, baldintza-agiria, aurrekontua, hondakinen kudeaketa azterlana, segurtasun eta osasun azterlana eta gainerako dokumentazio teknikoa barne, eta azkenik, 2026ko martxoaren 18an, dokumentazio osagarria.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko ekainaren 10ean egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, ekainaren 23an.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Fidantzei dagokienez, 2025eko maiatzaren 14an aurkeztutako idatzi batean eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatzeko fidantzatik salbuesteko eskaria egin zen. Horren oinarria honakoa zen:

*"Eraikuntza eta eraispen-hondakinak kudeatzeko fidantzari dagokionez (fidantza hori 112/2012 Dekretu autonomikoaren 5. artikuluan deskribatzen da), 52/1997 Legearen 4. xedapen gehigarriarekin lotuta Estatuari eta Erakunde Publikoei Laguntza Juridikoa emateari buruzko 52/1997 Legearen 12. artikuluaren arabera, autonomia-erkidegoek ez dute beharrezkoa izango fidantzak edo legeetan aurreikusitako beste edozein berme aurkeztea. Gure ustez, legeek autonomia-erkidegoen kasurako aurreikusten dituzten fidantza guztiei aplikatu behar zaie. Hala onartu du Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak (7. sekzioa), Kataluniako Generalitatearen mendeko erakunde publikoari buruzko 441/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aztertzean.*

*Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila denez obra-lizentziaren eskatzailea, eskatu du 112/2012 Dekretuan aurreikusitako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzetik salbuesteko. Hemen baieztatzen den guztia ez da oztopo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (Bizkaiako lurralde-ordezkaritza) eta eraispen horren obra zuzendaritzak arau sektorial horretan*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*aurreikusitako xedapenak bete behar izateko eta, ondorioz, eraispen-obra horietatik eratorritako hondakin guztiak behar bezala kudeatzeko, bere erantzukizunpean. Administrazio eta Zerbitzuetako Sailburu -ordetzak landu du honekin batera doan dokumentua, dagokion obra- baimenarekin batera bertako Udalak halako ziurtagiria igor dezan ongi bete ondoren."*

Honi dagokionez, lehenik eta behin aztertu beharrekoa zera da, ea lege hori gure kasuari aplikagarri zaion. 2002ko maiatzaren 14ko Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiari erreparatzen badiogu, honakoa irakur daiteke:

*"La presente* ***Ley*** *tiene como objetivo dar eficaz respuesta a esa necesidad de instrumentar una asistencia jurídica al Estado acorde con los postulados de una Administración moderna, austera, eficaz y tributaria de un sometimiento pleno a la Constitución EDL 1978/3879 y al resto del ordenamiento jurídico. Para ello se proponen unas mínimas normas organizativas del Servicio Jurídico del Estado, instrumento que prestará esa asistencia jurídica, una regulación moderna y plenamente adaptada a la Constitución de las especialidades procesales del Estado y una unificación y clarificación de la normativa que se completará con el necesario reglamento de desarrollo de esta* ***Ley*** *" (...) "****Los Capítulos II y III de la Ley (artículos 5 a 10 y 11 a 15) EDL 1997/25086 tratan de sistematizar y concretar con el adecuado rango normativo, la posición procesal, ante los diversos órdenes jurisdiccionales, del Estado y Organismos públicos de él dependientes, así como de los Organos Constitucionales, reduciendo al mínimo las reglas especiales extravagantes al Derecho Procesal común, y conciliando al mismo tiempo tales reglas especiales con los principios constitucionales aludidos****. Queda patente en esta regulación la vocación de mantener en todo lo posible las normas generales así como las especialidades del Estado que pudieran encontrarse recogidas en las* ***leyes*** *procesales generales.*

*Ahora bien, hay que distinguir claramente la regulación de los dos capítulos. El Capítulo II EDL 1997/25086 recoge normas que, refiriéndose a la materia de representación y defensa en juicio, y teniendo por ello trascendencia procesal, sólo afectan al Estado (en sentido más amplio por contraposición a las Comunidades Autónomas) al ser los aspectos de organización de los Servicios Jurídicos los que priman.* ***En el Capítulo III EDL 1997/25086 se recogen normas eminentemente procesales cuya competencia, en virtud de lo dispuesto en el artículo 149.1.6ª de la Constitución, corresponde en exclusiva al Estado. Estas normas de carácter procesal son, por tanto, de aplicación tanto al Estado como a las Comunidades Autónomas y así se declare expresamente en la disposición adicional cuarta, siguiendo así una técnica legislativa marcada pro la doctrina del Tribunal Constitucional.*** *"*

Beraz, nahiz eta legedia hori Autonomia Erkidegoei aplikagarria izan, ez da gure kasuari aplikagarria; izan ere, lege horrek arau bereziki prozesalak jasotzen ditu. Hori dela eta, ez litzateke interesduna fidantza ezartzetik salbuetsi beharko.

Ezarri beharreko fidantzari dagokionez, 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (7.046,29 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **8.455,55** eurokoa izango da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko maiatzaren 23an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, CEIP Bermeo-San Francisco HLHI ikastetxean irisgarritasuneko eta suteen aurkako segurtasuneko obrak egiteko eskatutako obra lizentzia ematea **onartzea**.

BIGARRENA.- 2025eko maiatzaren 14an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatzeko fidantzatik salbuesteko egindako eskaria **ezeztea**.

Hori horrela, lizentzia honek indarra izan aurretik interesdunak honako fidantza gordailatu beharko du udalean:

- Eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpen eta kudeaketagatiko fidantza: **8.455,55** euro.

HIRUGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

**Lizentziaren eraginkortasunerako aurretiazko baldintzak**

- Justifikatu beharko da aurreikusitako ur-hornidurak indarreko araudiak eskatzen dituen emari eta presio baldintzak betetzen dituela. Baldintza horiek udal hornidura-sarearen bidez bermatzen ez badira, horiek betetzeko beharrezkoak diren neurri osagarriak aurreikusi eta justifikatu beharko dira.

-Proiektatutako detektagailu automatiko berriak, eskuzko alarma-pultsagailuak eta gailu akustikoak ikastetxean dagoen suteen detekzio eta alarma instalazioan integratuko direla justifikatu beharko da. Horretarako, elementu berriak konektatuko diren suteen aurkako zentralaren identifikazioa egin beharko da, haren gaitasun erabilgarria egiaztatu beharko da, eta lehendik dauden ekipamenduen eta proiektatutako ekipamenduen arteko bateragarritasun teknikoa justifikatu beharko da.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

-Aurreikusitako handitzeak lehendik dagoen detekzio eta alarma zentralaren aldaketa edo ordezkapena eskatzen badu, dagokion dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da, behin betiko hartutako soluzioa zehaztuz eta haren egokitasuna justifikatuz.

**Obra hasi aurretik bete beharrekoak**

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (ICIO), dagokion tasa eta aplikagarriak diren gainerako tributuak izapidetu eta likidatu beharko dira, indarrean dagoen araudi fiskalean ezarritakoaren arabera, hala badagokio dagokion hobaria edo salbuespena aplikatuz.

-Obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren izendapena aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsita edo administrazio eskudunak gainbegiratuta, hala badagokio.

-Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen izendapena aurkeztu beharko da, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan aurreikusitako kasuetan.

-Obraren hasieraren berri eman beharko zaio Bermeoko Udalari, dagokion hasiera-komunikazioaren bidez.

-Jabari publikoaren okupazioa beharrezkoa bada, dagokion baimen edo lizentzia independentea izapidetu beharko da obrak hasi aurretik. Jabari publikoan aurreikusitako okupazio guztiak jasoko dituen obraren ezarpen-plano xehatua aurkeztu beharko da, bertan zehaztuz hondakinak biltegiratzeko eremuak, edukiontziak, obrako etxolak, higiene- eta ongizate-instalazioak, material-pilaketak eta gainerako bitarteko osagarrien kokapena.

-Udal jabari publikoaren okupazioa dagokion udal-ordenantzaren arabera izapidetu beharko da, sustatzaile den administrazioari aplikagarri izan dakizkiokeen salbuespen edo zerga-onuren kalterik gabe.

-Obrak hasi aurretik Segurtasun eta Osasun Plana onartu beharko da, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

-Obrak sei hilabete baino gehiago iraungo balu, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 44.2 artikuluaren arabera eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da.

**Obra gauzatzeko baldintza teknikoak**

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuaren arabera gauzatuko dira.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Proiektuan jasotako soluzioak aldatzen dituen edozein aldaketa esanguratsu Udalari jakinarazi beharko zaio aurretiaz, haren balorazioa eta, hala badagokio, baimena lortzeko.

-Egokitutako komunek **laguntza edo larrialdi-dei sistema irisgarria izango dute**, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan eta UNE 170001-2 arauan ezarritakoaren arabera, arreta iraunkorra duen gune batekin edo ikastetxeak aurreikusitako kudeaketa-sistemarekin komunikazioa bermatuz.

-Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. Eranskineko 3.7 apartatuko 4. puntuan ezarritakoaren arabera, **E3 eta E4 eraikinetarako sarbidea ematen duten kanpoko eskailerek bitarteko pasamanoak izango dituzte**, eskaileren zabalera 2,40 metro baino handiagoa baita.

-Suteen aurkako instalazio guztiek bete beharko dituzte Suteen Aurkako Instalazioen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuan ezarritako preskripzioak, bai eta instalatutako sistema bakoitzari aplikatu beharreko UNE arauak ere.

-Eraikinaren kanpoaldean aurreikusitako suteen aurkako presio-taldea behar bezala babestutako armairu edo instalazio-eremu baten barruan kokatuko da, **mantentze-lanetarako irisgarritasuna**, eguraldiaren aurkako babesa eta baimenik gabeko manipulazioen aurkako segurtasuna bermatuz.

-Suteen aurkako instalazioei lotutako instalazio elektrikoak Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren eta suteen detekzio eta alarma sistemei aplikatu beharreko baldintza espezifikoen arabera gauzatuko dira.

**Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak**

-Obra-lekuan, udal zerbitzu teknikoen eskura, lizentziaren kopia bat eta baimendutako proiektuaren ale bat egongo dira une oro, bai eta obran zehar onartutako edozein aldaketa, dokumentazio osagarri edo udal baimen ere.

-Obrak dagokion Zuzendaritza Fakultatiboaren zuzendaritzapean gauzatuko dira, eta teknikari arduradunek lizentzian, baimendutako proiektuan eta aplikatu beharreko araudi tekniko eta sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla zainduko dute.

-Obrek dirauten bitartean ikastetxearen jarduera, erabilera eta funtzionamendu arrunta ahalik eta gehien bermatu beharko dira. Horretarako, Segurtasun eta

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Osasun Azterlanean eta dagokion Segurtasun eta Osasun Planean aurreikusitako sektorizazio, itxitura, seinaleztapen, babes eta antolaketa-neurriak ezarri beharko dira, jarduera akademikoaren eta obren arteko bateragarritasuna bermatzeko.

-Obren faseak aurkeztutako programazioaren arabera gauzatuko dira, une oro ikasle, irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langile zein gainerako erabiltzaileentzako segurtasun-baldintzak bermatuz.

-Obrek dirauten bitartean, eraikinetarako sarbideak, irisgarritasun-baldintzak, ebakuazio-ibilbideak, larrialdi-irteerak eta larrialdi-zerbitzuentzako sarbideak erabilgarri mantendu beharko dira une oro. Horretarako, obrako etxolak, edukiontziak, material-pilaketak, aldamioak, plataforma jasotzaileak eta gainerako bitarteko osagarriak kokatuko dira ikastetxearen funtzionamendu normala, segurtasuna, irisgarritasuna, ebakuazioa eta larrialdi-zerbitzuen jarduna oztopatu gabe. Baldintza horiek betetzea posible ez denean, behar bezala seinaleztatutako, babestutako eta indarreko araudiaren arabera egokitutako ordezko ibilbideak ezarri beharko dira.

-Segurtasun eta osasun arloan nahitaez bete beharko dira Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, bai eta Segurtasun eta Osasun Azterlanean eta dagokion Segurtasun eta Osasun Planean jasotako neurri guztiak ere.

-Sortutako eraikuntza eta eraispen hondakinak aldizka erretiratu beharko dira, lan-eremuak eta inguruko espazioak orden, garbitasun eta segurtasun baldintza egokietan mantenduz. Hondakin guztiak ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta baimendutako kudeatzaileari entregatu izanaren egiaztagiriak gorde beharko dira.

-Obren garapenean amiantoa edo hasieran aurreikusi gabeko beste material arriskutsuren bat antzemanez gero, lanak berehala eten beharko dira ukitutako eremuan, eta aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritako neurriak hartu beharko dira, dagokion dokumentazioa aurkeztu eta administrazio eskudunaren baimenak lortu aurretik.

-Udal zerbitzu teknikoek obra ikuskatzea ahalbidetu beharko da une oro, eta eskatutako dokumentazio tekniko eta administratiboa aurkeztu beharko da.

-Proiektuan aurreikusi gabeko gorabeheraren bat gertatuz gero edo aurreikusitako soluzio teknikoak aldatu behar badira, Udalari jakinarazi beharko zaio aldaketa gauzatu aurretik, dagokion balorazioa egin eta, hala badagokio, beharrezko

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

baimena eman dezan.

**Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa**

-Obra Amaierako Ziurtagiria aurkeztu beharko da, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatua, obrak baimendutako proiektuaren eta lizentzian ezarritako baldintzen arabera gauzatu direla egiaztatuz.

-Obraren azken likidazioa aurkeztu beharko da, egindako obraren benetako kostua jasotzen duena.

-Proiektuan aurreikusitako kalitate-kontrolaren dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

-Eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketaren azken egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, hondakinak baimendutako kudeatzaile bati entregatu zaizkiola egiaztatuz.

-Suteen aurkako instalazioen instalazio-ziurtagiriak eta martxan jartzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Suteen Aurkako Instalazioen Erregelamenduaren arabera gaitutako enpresa instalatzaileek emanda.

-Instalazioak gauzatu dituzten enpresa baimenduen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

-Suteen detekzio eta alarma sistemaren "as built" dokumentazioa aurkeztu beharko da, instalazioaren behin betiko egoera, ekipamenduen kokapena eta eguneratutako eskemak jasoz.

-Proiektatutako elementu berriak lehendik dagoen suteen aurkako zentralarekin integratu direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, zentralaren programazio, egokitzapen edo handitzearen ziurtagiriak ere bai.

-Suteen aurkako instalazioen erabilera eta mantentze-programa aurkeztu beharko da, baita instalatutako sistemak behar bezala kontserbatu eta erabiltzeko beharrezkoak diren eskuliburuak ere.

Suaren aurkako babes pasiboko sistemen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, proiektuan eta araudian eskatutako prestazioak betetzen direla egiaztatuz.

-Obraren azken egoeraren argazki-erreportajea aurkeztu beharko da.

-Udal zerbitzu teknikoek, aplikatu beharreko araudiaren arabera, beharrezkotzat jotzen duten gainerako dokumentazio teknikoa, administratiboa edo sektoriala

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

aurkeztu beharko da.

LAUGARRENA.- Interesdunak aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 502.194,88 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (**478.283,51** euro segurtasun eta osasun eta hondakinen kudeaketa partidak kenduta).

BOSGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak eskatzen duen gutxiengo edukiari dagokionez, honakoak izango dira lizentziaren epeak:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

SEIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

ZAZPIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZORTZIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**4.- BERMEOKO AURREKOETXEA 14 ZENBAKIKO ERAIKINEKO BARRUKO PATIOETAKO FATXADEN SANEAMENDURAKO ETA SATE SISTEMA INSTALATZEKO OBRA-LIZENTZIA ONARTZEA.**

**Xedea**

Bermeoko Aurrekoetxea 14 zenbakiko eraikineko barruko patioetako fatxaden saneamendurako eta SATE sistema instalatzeko obra-lizentzia.

**Aurrekariak**

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Lehenengoa.- 2025eko apirilaren 22an Aurrekoetxea 14ko Jabe Elkarteak obra-lizentzia eskatu zuen eraikinaren patio barruko fatxadak birgaitzeko, dagokion exekuzio-proiektua aurkeztuz.

Bigarrena.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 2026ko maiatzaren 28an kontrako txosten teknikoa eman zuen udal arkitektoak, aurkeztutako proiektuan zenbait hutsune eta kontraesan antzeman zirelako. Zehazki, dokumentazioaren ikus-onespenari, obren logistikari eta bitarteko osagarriei, SATE sistemaren lodierari eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari buruzko argibideak eta zuzenketak eskatu ziren.

Hirugarrena.- 2026ko ekainaren 18an interesdunak dokumentazio osagarria aurkeztu zuen, besteak beste, ikus-onetsitako proiektu osoa, memoria osatua, mantentze-plana eta udal errekerimenduari emandako erantzuna jasoz.

Aurkeztutako dokumentazio osagarriaren azterketatik ondorioztatzen da aurreko txostenean adierazitako hutsune nagusiak behar bezala argitu eta osatu direla, eta, beraz, espedienteak izapidetzen jarraitzeko behar besteko edukia duela.

Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua hogeita hamar mila laurehun eta laurogeita hamar eurokoa da (58.341,11 €).**

Bigarrena.- 2026ko ekainaren 18an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2026ko ekainaren 22an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko apirilaren 22an aurkeztu zen proiektua; ondoren 2026ko ekainaren 18an interesdunak dokumentazio osagarria aurkeztu eta udal arkitektoak txostena egin zuen. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*"Jarduketaren xedea eraikinaren patio barruko fatxadetan birgaitze-lanak egitea da, kanpo-inguratzailearen portaera termikoa hobetuz eta eraikinaren kontserbazio-egoera hobetuz."*

Bigarrena.- 2026ko ekainaren 18an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*"Aurkeztutako dokumentazioa eta aplikatu beharreko araudia aztertu ondoren, hirigintza ikuspegitik ez dago eragozpenik Aurrekoetxea kaleko 14 zenbakian patio barruko fatxadak birgaitzeko obrak gauzatzeko.*

***4. Lizentziaren baldintzak***

***4.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak***

*-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egitea, behar den moduan eta epean ordaindu beharko dena, baita Hondakinen Kudeaketako abala eratzea ere.*

*Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.*

*-Sustatzaileak obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.*

*-Obren hasiera Udalari jakinarazi beharko zaio, eta zuinketa egiaztatzeko aukera eman beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.*

*-Zuinketa-akta eta obraren hasiera eskatu beharko dira. Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.*

*-112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.*

*-Jabari publikoa okupatu behar bada, dagokion okupazio-baimena modu independentean eskatu eta lortu beharko da. Baimen hori ez da obra-lizentzia honen barruan sartzen.*

*Hala ere, luzapen hau ezinbesteko arrazoiengatik sortutako atzerapenen kalterik gabe emango da. Atzerapen horiek, nolanahi ere, behar bezala arrazoitu beharko dira idatziz Udalaren aurrean.*

*-Obrak irauten duen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako babeserako ordenantza bete beharko da, beraz, bertan ezarritako ordutegiak eta soinu mailak bermatu beharko dira.*

*-Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.*

*-Obra baimena aurkeztutako proiektu zuzenduan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, Udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.*

*-Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.*

*-Baimena indargabetu egingo da bere menpeko baldintzak betetzen ez badira, eta baliogabetu egingo da haren emakida eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo, izan balira, ukatzea justifikatuko zuketen beste batzuk gertatzen direnean.*

*-Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.*

*-Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan dauden datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan zehar sor daitezkeen gorabeheren erantzulea ere. Kasu horretan, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera eta intzidentzia horien erantzuletzat joko da.*

*-Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da, babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.*

*-Lizentziaren titularra izango da obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea, eta ezin izango da udal baimena erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.*

*-Lizentziaren titularra izango da obrak direla-eta udal bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.*

*-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpean dauden kaleak garbi mantendu beharko dira. Horretarako partzelaren barruan hartuko dira neurri guztiak.*

***4.4.– Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa***

*Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*aurkeztu beharko da:*

*-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.*

*-Obraren azken likidazio bisatua.*

*-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.*

*-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.*

*-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.*

*-Amiantoa duten hondakinak sortu badira, baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak.*

*-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.*

*-Eraikinaren eraberritutako egoeraren* **Energia Efizientziaren Ziurtagiria** *aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatua, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izan ere, jarduketak eraikinaren inguratzaile termikoan eragin nabarmena du, energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeen bidez.*

*-Era berean, instalatutako SATE sistemaren eta estalki berriaren erabilera, mantentze eta kontserbazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatutako produktuen fitxa teknikoak, bermeak eta fabrikatzailearen mantentze-jarraibideak barne, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 7. artikuluan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.*

*-112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan eta urbanizazio obretan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.*

*1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:*

*a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.*

*b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*

*c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.*

*-Behin betiko egoeraren argazkiak.*

*(…)*

***5.- Ondorioak***

*Azaldutako guztia kontuan hartuta, teknikari honek aldeko txostena ematen du Talako Andra Mari Auzoa 23ko Jabe Elkarteak eskatutako atzeko fatxadaren saneamendu- eta SATE bidezko isolamendu-obrei dagokien obra-lizentzia ematearen alde, aurkeztutako proiektuaren arabera eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen menpe.”*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko maiatzaren 19an egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu:

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Interesdunaren eskaera.
- «Proyecto Técnico. Saneado de la Fachada Zaguera del edificio y colocación de aislamiento térmico tipo SATE» izeneko memoria eta dokumentazio teknikoa, Pablo Basterrechea Astorkiza arkitektoak idatzia.
- Jarduketaren planoak.
- Aldamioaren instalazioari buruzko txostena eta planoak.
- Segurtasun eta Osasunari buruzko Oinarrizko Azterlana.
- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa azterlana.
- Kalitate-kontrolaren dokumentazioa.
- Kontratistaren aurrekontua eta gainerako dokumentazio osagarria.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko ekainaren 17an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, 2026ko ekainaren 22an.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia indarrean sartu baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

**Fidantzak**

**Hondakinen kudeaketa**

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (597,00 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **716,40** eurokoa izango da.

**Urbanizazioan sor daitezkeen kalteak**

Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik ezarri beharreko bermea **927,67** eurokoa izango da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko maiatzaren 19an, 14598309W NAN zenbakidun jauna, Errekagane Etxegintza SLren izenean, Talako Andra Mari Auzoa 23ko eraikinaren iparraldeko atzeko fatxada saneatu eta kanpoko isolamendu termikoko sistema (SATE) jartzeko aurkeztutako obra-lizentzia **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

**Obra hasi aurretik bete beharrekoak**

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egin beharko da, eta dagokion zenbatekoa behar den moduan eta epean ordaindu beharko da.

Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.

-Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.

-Obren hasiera Udalari jakinarazi beharko zaio, eta zuinketa egiaztatzeko aukera eman beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.

-Zuinketa-akta eta obraren hasiera eskatu beharko dira. Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

-112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.

-Jabari publikoa okupatu behar bada, dagokion okupazio-baimena modu independentean eskatu eta lortu beharko da. Baimen hori ez da obra-lizentzia honen barruan sartzen.

-Aldamioa instalatzeko jarduketaren eremuan dagoen udal-argiteria edo udal-jabetzako beste edozein elementu kentzea edo lekualdatzea beharrezkoa bada, kontratistak aldez aurretik Udaleko Zerbitzu Sailari jakinarazi beharko dio. Inola ere ezingo da udal-elementurik desmuntatu edo manipulatu dagokion udal baimenik gabe.

-Lizentzia ematen da, salbu eta jabetza eskubidea eta hirugarren baten kalterik gabe. Ezin izango da alegatu onuradunek beren jarduerak gauzatzean izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.

-Udalari jakinarazi beharko zaio obra lizentziaren titularitatean gertatzen den aldaketa oro, lehengo titularrak zein berriak sinatutako eskabide baten bidez. Titular berriak agiri horretan espresuki hartuko ditu bere gain lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Eskritura publikoan agertzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.

-Bermeoko HAPOak ezartzen duena errespetatuz, eraikina arkitektura-konposizio komuna duen eraikin-multzo baten parte denez, hartutako konponbideak multzo osoaren homogeneotasun bisuala bermatu beharko du. Horretarako, Udalak beharrezkotzat jotzen badu, proposatutako esku-hartzea multzoaren irudi bateratuan egoki integratzen dela egiaztatzeko dokumentazio osagarria aurkeztea eskatu ahal izango du.

**Obra gauzatzeko baldintza teknikoak**

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio.

-SATE sistemaren akabera-materialek, CTE DB-SI dokumentuko SI 2 atalean ezarritakoaren arabera, fatxada-sistemetarako aplikagarriak diren suarekiko erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

-Fatxadan dauden gas-instalazioen, hornidura-hodien eta gainerako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, dagokion araudi sektorialaren arabera.

-Gas-hodiak, hornidura-hodiak, zorrotenak eta fatxadako gainerako instalazioak berriz jartzean, trazadura ordenatua, lerrokatua eta mantentze-lanetarako irisgarria bermatu beharko da.

-Obra gauzatzeko aldamioak instalatu behar badira, instalatu aurretik teknikari eskudunak sinatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, instalatu beharreko sistemaren egokitasuna eta segurtasuna egiaztatzeko. Behin muntaketa amaituta, enpresa instalatzaileak emandako muntaketa zuzenaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Aldi berean, Udaltzainekin adostu beharko da kontainerra eta aldamuen kokapena. Udaltzaingoak aipatutako baldintzak bete beharko dira:

a) Ibilgailuak pasatzen diren kaleetan aldamuek gutxienez 3 metroko zabalerako utziko dute galtzadan,

b) Aldamuen zutoinak ezin izango dira espaloitik kanpo jarri

c) Argi horiko balizak eguzkia sartu eta sortu bitartean piztuta egon beharko dira

d) Edukiontziak jaiegun eta jai bezperatan kendu egin beharko dira 15:00ak aurretik.

-Aldamioek eta bitarteko osagarriek pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko babes-elementuak izan beharko dituzte, bereziki oinezkoentzako babes-biserak, sareak, hesitzea eta seinaleztapena.

-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen eta 2177/2004 Errege Dekretuaren arabera egin beharko dira.

-Karga-igogailuaren instalazioak eta materialen igoera/jaitsierako eragiketek ezin izango dute oinezkoen edo ibilgailuen segurtasuna arriskuan jarri, eta beharrezkoa bada, maniobra puntualetan behin-behineko babes-neurri osagarriak ezarri beharko dira.

-Obra gauzatzean, ahal den neurrian, portalerako eta erabileran dauden lokalen sarbidea bermatu beharko da.

-Obrak gauzatzean espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.

-Obrak dirauen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzan

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.

-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.

-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.

-Proiektuak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko eraikuntza ordenantzen xedapenak errespetatu beharko ditu.

-Lerrokadurak errespetatuko dira.

-Eraikigarritasuna ezin izango da gainditu.

**Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak**

-Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.

-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.

-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat eta ondoriorik gabe deklaratuko da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko betebeharra izango du, zehapena ohartarazita, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek Udalak gainbegiratuta egingo baitira.

Lizentziaren titularrak, bi epeetariko edozein amaitu baino hilabete lehenago gutxienez, epeok luzatu ahal izango ditu, atzerapenaren arrazoiak behar bezala bidezkotzen dituen eskabidea aurkeztuz.

Hala ere, luzapen hau ezinbesteko arrazoiengatik sortutako atzerapenen kalterik gabe emango da. Atzerapen horiek, nolanahi ere, behar bezala arrazoitu beharko dira idatziz Udalaren aurrean.

-Obrak irauten duen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako babeserako

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

ordenantza bete beharko da, beraz, bertan ezarritako ordutegiak eta soinu mailak bermatu beharko dira.

-Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

-Obra baimena aurkeztutako proiektu zuzenduan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, Udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.

-Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

-Baimena indargabetu egingo da bere menpeko baldintzak betetzen ez badira, eta baliogabetu egingo da haren emakida eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo, izan balira, ukatzea justifikatuko zuketen beste batzuk gertatzen direnean.

-Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.

-Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan dauden datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan zehar sor daitezkeen gorabeheren erantzulea ere. Kasu horretan, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera eta intzidentzia horien erantzuletzat joko da.

-Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da, babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

-Lizentziaren titularra izango da obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea, eta ezin izango da udal baimena erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

-Lizentziaren titularra izango da obrak direla-eta udal bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.

-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpean dauden kaleak garbi mantendu

beharko dira. Horretarako partzelaren barruan hartuko dira neurri guztiak.

**Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.

-Obraren azken likidazio bisatua.

-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.

-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.

-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.

-Amiantoa duten hondakinak sortu badira, baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak.

-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.

-Eraikinaren eraberritutako egoeraren **Energia Efizientziaren Ziurtagiria** aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatua, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izan ere, jarduketak eraikinaren inguratzaile termikoan eragin nabarmena du, energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeen bidez.

-Era berean, instalatutako SATE sistemaren eta estalki berriaren erabilera, mantentze eta kontserbazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatutako produktuen fitxa teknikoak, bermeak eta fabrikatzailearen mantentze-jarraibideak barne, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 7. artikuluan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.

-112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan eta urbanizazio obretan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

-Behin betiko egoeraren argazkiak.

HIRUGARRENA.- Lizentzia honek indarra izan dezan, ezinbestekoa izango da aurretiaz aipaturiko bermeen gordailatzea udal diruzaintzan:

- Hondakinen kudeaketagatiko fidantza: 716,40 euro.
- Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik: 927,67euro.

LAUGARRENA.- Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 47.635,48 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (**46.383,48** euro hondakinen kudeaketa, segurtasuna eta osasuna eta kalitate kontrolaren partidak kenduta).

BOSGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak eskatzen duen gutxiengo edukiari dagokionez, honakoak izango dira lizentziaren epeak:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

SEIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

ZAZPIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZORTZIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

## 6.- BERMEOKO ADUBIDXE 17-19 ERAIKINEKO ATZEALDEKO FATXADAKO BEGIRATOKIETAKO LEIHOAK ORDEZTEKO OBRA-LIZENTZIA ONARTZEA.

### Xedea

Bermeoko Adubidxe 17-19 eraikineko atzealdeko fatxadako begiratokietako leihoak ordezteko obra-lizentzia.

### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2025eko apirilaren 30ean sarrera eman zitzaion Bermeoko Udalaren Erregistro Orokorrean ADUBIDXE 17-19KO JABE ELKARTEAk aurkeztutako obra-lizentzia eskaerari, eraikinaren atzealdeko fatxadako begiratokietan dauden leihoak ordezteko.

Espedientearen arabera, 2025/00005827 sarrera-erregistroarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu da, besteak beste:

- interesdunaren eskaera
- “PROYECTO DE REFORMA. SUSTITUCIÓN DE VENTANAS EN MIRADORES DE LAS FACHADAS ZAGUERAS” izeneko memoria eta dokumentazio teknikoa, BAU Arkitektoak estudioak idatzia
- jarduketaren planoak
- aldamioei buruzko txostena eta planoak

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5 | Sinadurea eta datea: GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026; NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026; CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22 | DOCUMENTO: 20261490962 Datea: 06/07/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

- hondakinen kudeaketa azterlana
- segurtasun eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana
- kontratistaren aurrekontua eta gainerako dokumentazio osagarria

Ondoren, eta abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuan, nahitaezko elkargo-bisatuari buruzkoan, ezarritakoa betetze aldera, sustatzaileari dagokion proiektu teknikoa behar bezala bisatuta aurkezteko eskatu zitzaion. Eskakizun horri erantzunez, 2026ko ekainaren 16an proiektuaren ale bisatua aurkeztu zen Bermeoko Udalaren Erregistro Orokorrean. Aurkeztutako dokumentazioa osatutzat jo ondoren, dagokion txosten teknikoa ematera pasa da.

Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua ehun eta berrogeita hamalau mila laurehun eta hirurogeita bi euro eta berrogeita hamazazpi zentimokoa da (154.462,57 €).**

<u>Bigarrena</u>.- 2026ko ekainaren 16an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

<u>Hirugarrena</u>.- 2026ko ekainaren 22an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

<u>Lehenengoa</u>.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko apirilaren 30ean aurkeztu zen proiektua; ondoren 2026ko ekainaren 16an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*“Aurkeztutako memoriaren arabera, jarduketaren helburua eraikinaren atzealdeko fatxadako begiratokietan dauden egurrezko leihoak ordeztea da.*

*Horretarako aurreikusten da:*

- *egungo egurrezko leihoak desmuntatzea*
- *lehendik dauden aurre markoak eta egurrezko egitura-elementu nagusiak mantentzea*
- *PVCzko leiho berriak instalatzea, kanpoaldean urre-koloreko haritz imitazioko aluminiozko akaberarekin*
- *beira bikoitzeko sistemak jartzea*
- *kanpoko zigilatze eta erremate lanak egitea*
- *jarduketa gauzatzeko aldamio tubular modularrak instalatzea.*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, jarduketak ez du eraikinaren konfigurazio arkitektonikoa aldatzen, eta lehendik dauden hutsuneen neurriak eta kokapena mantentzen dira."*

Bigarrena.- 2026ko ekainaren 16an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

*"Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen kalterik gabe, teknikari honek aldeko txostena ematen du Adubidxe 17-19ko eraikinean atzealdeko fatxadako begiratokietako leihoak ordezteko obra-lizentzia ematearen alde.*

*Lizentzia, hala badagokio, ondorengo baldintzen menpe emango da.*

***5. Lizentziaren baldintzak***

***5.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak***

*-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta dagokion tasaren likidazioa egin beharko da.*

*-Sustatzaileak obraren zuzendaritza teknikoaren arduradunaren datuak jakinarazi beharko dizkio Udalari.*

*-Segurtasun eta Osasun arloko koordinatzailea izendatu beharko da obrak hasi aurretik, baldin eta obran enpresa bat baino gehiago, enpresa eta langile autonomoak batera, edo hainbat langile autonomo arituko badira, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izendapenaren berri Udalari eman beharko zaio dagokion onarpen-agiriarekin batera.*

*-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie.*

*-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera,* ***hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa bostehun eta laurogeita hemezortzi eurokoa da (598,00 €). Horren %120 aplikatuta, hondakinen kudeaketarako fidantza zazpiehun eta hamazazpi euro eta hirurogei zentimokoa (717,60 €) izango da.***

*-Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Proiektuaren Exekuzio Materialaren Aurrekontua (PEM) ehun eta berrogeita hamalau mila laurehun eta hirurogeita bi euro eta berrogeita hamazazpi zentimokoa da (154.462,57 €), eta hortik kanpo geratzen dira 3. kapitulua Segurtasun eta Osasuna (300,00 €), 2. kapitulua Kalitate*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Kontrola (10,00 €) eta 4. kapitulua Hondakinen Kudeaketa (598,00 €). Ondorioz,* ***urbanizazio publikoari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko kalkulu-oinarria ehun eta berrogeita hamahiru mila bostehun eta berrogeita hamalau euro eta berrogeita hamazazpi zentimokoa da (153.554,57 €).***

*-Indarrean dagoen* ***udal araudiaren arabera aplikatu beharreko %2ko ehunekoa kontuan hartuta****, urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteengatiko* ***bermea hiru mila eta hirurogeita hamaika euro eta bederatzi zentimokoa (3.071,09 €) izango da.***

*-Aldamioak jartzeko beharrezkoa bada jabari publikoa okupatzea edo obra garaian espazio publikoa erabiltzea, dagokion okupazio-baimena lortu beharko da aldez aurretik.*

***5.2. Obra gauzatzeko baldintza teknikoak***

*-Obrak aurkeztutako eta baimendutako dokumentazio teknikoaren arabera gauzatuko dira.*

*-Jarduketaren diseinuan, materialen ezaugarrietan edo arotzerien konfigurazioan aldaketarik egin nahi izanez gero, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio.*

*-Eraikinaren irudi bateratua eta fatxaden homogeneotasun estetikoa bermatzeko, instalatuko diren arotzeria berriek eraikin bereko kanpoko fatxadetan aurretik instalatutako arotzerien kolore, akabera, profilen konfigurazio, zatiketa, irekiera-tipologia eta osaera bera izan beharko dute. Ez da onartuko kolore, diseinu edo konfigurazio desberdineko arotzeriarik jartzea.*

*-Lehendik dauden aurre markoak edo egurrezko elementuak mantentzen badira, haien egonkortasuna eta kontserbazio-egoera egokia dela egiaztatu beharko da.*

*- Kendutako arotzeriak, beirak eta gainerako hondakinak baimendutako hondakin-kudeatzaile baten bidez kudeatu beharko dira.*

*-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen arabera egingo dira.*

*-Aldamioek beharrezko babes-elementu guztiak izan beharko dituzte, bereziki sareak, barandak, babes-oholak eta objektuen erorketa saihesteko sistemak.*

*-Obrek ezin izango dute eraikinaren erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jarri, eta sarbideak ahal den neurrian mantendu beharko dira.*

*-Obrak dirauen bitartean, lan-eremua garbi mantendu beharko da.*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.*

***5.3.– Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak***

*-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.*

*-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.*

*-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.*

*-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte.*

***5.4.– Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa***

*Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:*

*-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.*

*-Obraren azken likidazio bisatua.*

*-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne.*

*-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.*

*-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.*

*-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.*

*-Instalatutako leihoek* ***CTEko DB-HE dokumentuan eta aplikagarriak diren gainerako xedapenetan ezarritako energia-eraginkortasun eta estankotasun baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen instalatzaile baimenduaren ziurtagiria aurkeztu beharko da****. Ziurtagiriarekin batera, instalatutako arotzerien eta beiren prestazio-adierazpenak (DoP) eta fitxa teknikoak aurkeztuko dira, gutxienez honako ezaugarri hauek egiaztatzeko: zubi termikoaren etena duten arotzeriak edo PVCzkoak, emisio baxuko beira bikoitza argon-gasarekin edo prestazio baliokideekin, eta UNE-EN 12207 arauaren araberako airearekiko iragazkortasunaren 3. edo 4. klasea.*

*-Aurkeztutako dokumentazioan adierazten da kendutako arotzeriak enpresa instalatzailearen biltegira eramango direla materialak bereizi eta balorizatzeko. Hala*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*ere, ez da behar bezala justifikatzen hondakin horien azken kudeaketa, ezta berrerabiliko, balorizatuko edo baimendutako hondakin-kudeatzaile bati entregatuko zaizkion materialen trazabilitatea ere. Obraren amaieran, sortutako hondakinen azken kudeaketa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.*

*-Behin betiko egoeraren argazkiak.*

***6. Ondorioak***

*Azaldutako guztia kontuan hartuta, teknikari honek aldeko txostena ematen du Adubidxe 17-19ko Jabe Elkarteak eskatutako obra-lizentzia ematearen alde, aurkeztutako proiektuaren arabera eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen menpe."*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko apirilaren 30ean egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu:

- interesdunaren eskaera
- "PROYECTO DE REFORMA. SUSTITUCIÓN DE VENTANAS EN MIRADORES DE LAS FACHADAS ZAGUERAS" izeneko memoria eta dokumentazio teknikoa, BAU Arkitektoak estudioak idatzia
- jarduketaren planoak
- aldamioei buruzko txostena eta planoak
- hondakinen kudeaketa azterlana
- segurtasun eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana
- kontratistaren aurrekontua eta gainerako dokumentazio osagarria

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia eman aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko ekainaren 16an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, 2026ko ekainaren 22an

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia indarrean sartu baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

**Fidantzak**

**Hondakinen kudeaketa**

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (598,00 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **717,60** eurokoa izango da.

**Urbanizazioari eragin diezazkiokeen kalteak**

Urbanizazioari eragin diezazkiokeen kalteengatiko fidantza **3.071,09** eurokoa izango da.

**Erabakia**

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko apirilaren 30ean, 30630747z NAN zebakidun andreak, Adubidxe 17-19 Jabe Elkartearen izenean, eraikin bereko atzealdeko fatxadako begiratokietan dauden leihoak ordezteko eskatutako obra-lizentzia **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

**Obra hasi aurretik bete beharrekoak**

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta dagokion tasaren likidazioa egin beharko da.

-Sustatzaileak obraren zuzendaritza teknikoaren arduradunaren datuak jakinarazi beharko dizkio Udalari.

-Segurtasun eta Osasun arloko koordinatzailea izendatu beharko da obrak hasi aurretik, baldin eta obran enpresa bat baino gehiago, enpresa eta langile autonomoak batera, edo hainbat langile autonomo arituko badira, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izendapenaren berri Udalari eman beharko zaio dagokion onarpen-agiriarekin batera.

-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie.

-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, **hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa bostehun eta laurogeita hemezortzi eurokoa da (598,00 €). Horren %120 aplikatuta, hondakinen kudeaketarako fidantza zazpiehun eta hamazazpi euro eta hirurogei zentimokoa (717,60 €) izango da.**

-Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Proiektuaren Exekuzio Materialaren Aurrekontua (PEM) ehun eta berrogeita hamalau mila laurehun eta hirurogeita bi euro eta berrogeita hamazazpi zentimokoa da (154.462,57 €), eta hortik kanpo geratzen dira 3. kapitulua Segurtasun eta Osasuna (300,00 €), 2. kapitulua Kalitate Kontrola (10,00 €) eta 4. kapitulua Hondakinen Kudeaketa (598,00 €). Ondorioz, **urbanizazio publikoari eragin dakizkiokeen kalteak bermatzeko kalkulu-oinarria ehun eta berrogeita hamahiru mila bostehun eta berrogeita hamalau euro eta berrogeita hamazazpi zentimokoa da (153.554,57 €).**

-Indarrean dagoen **udal araudiaren arabera aplikatu beharreko %2ko ehunekoa**

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**kontuan hartuta**, urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteengatiko **bermea hiru mila eta hirurogeita hamaika euro eta bederatzi zentimokoa (3.071,09 €) izango da.**

-Aldamioak jartzeko beharrezkoa bada jabari publikoa okupatzea edo obra garaian espazio publikoa erabiltzea, dagokion okupazio-baimena lortu beharko da aldez aurretik.

**Obra gauzatzeko baldintza teknikoak**

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako dokumentazio teknikoaren arabera gauzatuko dira.

-Jarduketaren diseinuan, materialen ezaugarrietan edo arotzerien konfigurazioan aldaketarik egin nahi izanez gero, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio.

-Eraikinaren irudi bateratua eta fatxaden homogeneotasun estetikoa bermatzeko, instalatuko diren arotzeria berriek eraikin bereko kanpoko fatxadetan aurretik instalatutako arotzerien kolore, akabera, profilen konfigurazio, zatiketa, irekiera-tipologia eta osaera bera izan beharko dute. Ez da onartuko kolore, diseinu edo konfigurazio desberdineko arotzeriarik jartzea.

-Lehendik dauden aurre markoak edo egurrezko elementuak mantentzen badira, haien egonkortasuna eta kontserbazio-egoera egokia dela egiaztatu beharko da.

- Kendutako arotzeriak, beirak eta gainerako hondakinak baimendutako hondakin-kudeatzaile baten bidez kudeatu beharko dira.

-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen arabera egingo dira.

-Aldamioek beharrezko babes-elementu guztiak izan beharko dituzte, bereziki sareak, barandak, babes-oholak eta objektuen erorketa saihesteko sistemak.

-Obrek ezin izango dute eraikinaren erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jarri, eta sarbideak ahal den neurrian mantendu beharko dira.

-Obrak dirauen bitartean, lan-eremua garbi mantendu beharko da.

-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.

**Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak**

-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.

-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.

-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte.

**Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.

-Obraren azken likidazio bisatua.

-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne.

-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.

-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.

-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.

-Instalatutako leihoek **CTEko DB-HE dokumentuan eta aplikagarriak diren gainerako xedapenetan ezarritako energia-eraginkortasun eta estankotasun baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen instalatzaile baimenduaren ziurtagiria aurkeztu beharko da**. Ziurtagiriarekin batera, instalatutako arotzerien eta beiren prestazio-adierazpenak (DoP) eta fitxa teknikoak aurkeztuko dira, gutxienez honako ezaugarri hauek egiaztatzeko: zubi termikoaren etena duten arotzeriak edo PVCzkoak, emisio baxuko beira bikoitza argon-gasarekin edo prestazio baliokideekin, eta UNE-EN 12207 arauaren araberako airearekiko iragazkortasunaren 3. edo 4. klasea.

-Aurkeztutako dokumentazioan adierazten da kendutako arotzeriak enpresa instalatzailearen biltegira eramango direla materialak bereizi eta balorizatzeko. Hala ere, ez da behar bezala justifikatzen hondakin horien azken kudeaketa, ezta berrerabiliko, balorizatuko edo baimendutako hondakin-kudeatzaile bati entregatuko zaizkion materialen trazabilitatea ere. Obraren amaieran, sortutako hondakinen azken kudeaketa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

-Behin betiko egoeraren argazkiak.

HIRUGARRENA.- Lizentziak indarra izan dezan, honako zenbatekoak gordailatu

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

beharko dira udal diruzaintzan:

- Hondakinen kudeaketagatik: 717,60 euro.
- Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik: 3.071,09

Fidantzak gordailatu arte, lizentzia honek ez du eraginik sortuko.

LAUGARRENA.- Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 154.462,57 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (**153.554,57** Hondakinen Kudeaketa, Kalitate Kontrola eta Segurtasun eta Osasun partidak kenduta).

BOSGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak eskatzen duen gutxiengo edukiari dagokionez, honakoak izango dira lizentziaren epeak:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

SEIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun esklusibopean.

ZAZPIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZORTZIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

**7.- BIDEBARRIETA KALEKO 12 ZENBAKIKO ERAIKINEAN ESTALKIAREN BIRGAITZE-LANAK EGITEKO OBRA-LIZENTZIAREN GEHIKETA ONARTZEA**.

**Xedea**

Bidebarrieta kaleko 12 zenbakiko eraikinean estalkiaren birgaitze-lanak egiteko obra-lizentziaren gehiketa.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2021eko urtarrilaren 18an Bidebarrieta 12ko Jabe Elkarteak eraikinaren fatxadak birgaitzeko obra-lizentzia eskatu zuen, J.U.E arkitektoak idatzitako eta 2020ko abenduaren 1ean ikus-onetsitako proiektua aurkeztuz. Espediente horri dagokion lizentzia eman bazen ere, obrak ez ziren gauzatu.

Bigarrena.- 2025eko abuztuaren 19an interesdunek dokumentazio osagarria aurkeztu dute, eraikinaren estalkiaren birgaitzea jasotzen duen eranskina gehituz, fatxaden eta estalkiaren gaineko esku-hartzea batera gauzatzeko helburuarekin.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, jarduketaren helburua eraikinaren kanpo-inguratzailea hobetzea da, fatxadetan eta estalkian isolamendu termikoa handituz eta eraikinaren portaera energetikoa hobetuz.

Hirugarrena.- 2021eko abenduaren 1ean Josu Uribarri Etxebarria arkitektoak idatzitako fatxadak birgaitzeko exekuzio-proiektuaren arabera, aurkeztutako dokumentazio ekonomikoan jasotzen denez, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua laurogeita zortzi mila laurehun eta laurogeita hamazazpi euro eta hirurogeita hamabi zentimokoa da (88.497,72 €).**

2025eko maiatzaren 21ean bisatutako «Fatxaden Birgaitzea. A Eranskina: Estalkiaren Erreforma» dokumentuaren arabera, aurkeztutako dokumentazio ekonomikoan jasotzen denez, jarduketaren **Egikaritze Materialaren Aurrekontua hogeita hamahiru mila zortziehun eta laurogeita zazpi eurokoa da (33.887,00 €).**

Ondorioz, **fatxadak birgaitzeko exekuzio-proiektua eta estalkiaren erreformarako eranskina batera hartuta, jarduketa osoaren Egikaritze Materialaren Aurrekontua ehun eta hogeita bi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta hirurogeita hamabi zentimokoa da (122.384,72 €).**

Laugarrena.- 2026ko ekainaren 17an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2026ko ekainaren 22an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko abuztuaren 19an aurkeztu zen proiektuaren aldaketa eskaria; ondoren 2026ko ekainaren 17an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua eraikinaren estalkiaren birgaitzea zela adierazi zuen, horrela, fatxaden eta estalkiaren esku

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

hartzea batera gauzatzeko.

Bigarrena.- 2026ko ekainaren 17an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

*"Aurkeztutako dokumentazioa eta aplikatu beharreko araudia aztertu ondoren, hirigintza ikuspegitik ez dago eragozpenik Bidebarrieta kaleko 12 zenbakian fatxadak eta estalkia birgaitzeko obrak baimentzeko, betiere ondorengo baldintzak betetzen badira:*

***4. Lizentziaren baldintzak***

***4.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak***

*-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egitea, behar den moduan eta epean ordaindu beharko dena, baita Hondakinen Kudeaketako abala eratzea ere.*

*Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.*

*-Sustatzaileak obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.*

*-Obren hasiera Udalari jakinarazi beharko zaio, eta zuinketa egiaztatzeko aukera eman beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.*

*-Zuinketa-akta eta obraren hasiera eskatu beharko dira. Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.*

*-112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.*

*-Jabari publikoa okupatu behar bada, dagokion okupazio-baimena modu independentean eskatu eta lortu beharko da. Baimen hori ez da obra-lizentzia honen barruan sartzen.*

*-Lizentzia ematen da, salbu eta jabetza eskubidea eta hirugarren baten kalterik gabe. Ezin izango da alegatu onuradunek beren jarduerak gauzatzean izan*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.*

*-Udalari jakinarazi beharko zaio obra lizentziaren titularitatean gertatzen den aldaketa oro, lehengo titularrak zein berriak sinatutako eskabide baten bidez. Titular berriak agiri horretan espresuki hartuko ditu bere gain lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Eskritura publikoan agertzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.*

*-Bermeoko HAPOak eta Alde zaharra birgaitzeko Plan Bereziak ezartzen duena errespetatuko da:*

*a) Eraikinaren fatxadaren konposizio estetikoa mantendu beharko da, hala, 62. artikuluak zehazten duen bezala, ez dira onartuko fatxadaren jatorrizko elementuak estaltzen dituzten tratamendu edo gainestaldurak, hala, iturri, armarri, moldura, markesina, zutoin, inskripzio, estuko eta eraikinak jatorriz dituen ezaugarrien bestelako adierazpideak mantendu egin beharko dira. Beraz, SATE sistema jartzerakoan eraikinaren moldurak eta elementu estetikoak errespetatu beharko dira. Adibidez, lehen solairuko forjatuaren moldura, fatxada nagusiko leihoak batzen dituen moldura, fatxada planoko miradore ondoko marrak etab.*

*b) PVCzko zorrotenak eta kanaletak margoztu egin beharko dira, fatxadaren koloreak erabiliz.*

*c) Arotzeriari dagokionez, egurrezko forratuak eta estalki hegalak ezin dira barnizatu, margoztu egin behar dira.*

*d) Barandillak mantendu egin beharko dira eta eraberritzekotan, tratamendua eman ondoren kolore beltzarekin margotu beharko dira, eraikineko jatorrizko eraikuntzako ereduari jarraiki berriztatuko dira, jatorriz erabilitako material berdinez eta konposizioko orduko diseinua aintzat hartuta.*

*e) Ezin izango da altzairu herdoilgaitzezko materialik erabili.*

*-Fibrozementuzko plakak kentzeko lanak amiantoa duten materialak manipulatzeko baimendutako enpresa espezializatu batek egin beharko ditu. Obrak hasi aurretik, hala badagokio, dagokion Lan Plana aurkeztu beharko da, Lan Agintaritzak onartua, amiantoaren esposizio-arriskua duten lanetarako aplikatzekoa den araudiaren arabera.*

***4.2. Obra gauzatzeko baldintza teknikoak***

*-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*beharko zaio.*

*-SATE sistemaren akabera-materialek, CTE DB-SI dokumentuko SI 2 atalean ezarritakoaren arabera, fatxada-sistemetarako aplikagarriak diren suarekiko erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.*

*-Fatxadan dauden gas-instalazioen, hornidura-hodien eta gainerako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, dagokion araudi sektorialaren arabera.*

*-Gas-hodiak, hornidura-hodiak, zorrotenak eta fatxadako gainerako instalazioak berriz jartzean, trazadura ordenatua, lerrokatua eta mantentze-lanetarako irisgarria bermatu beharko da.*

*-Obra gauzatzeko aldamioak instalatu behar badira, instalatu aurretik teknikari eskudunak sinatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, instalatu beharreko sistemaren egokitasuna eta segurtasuna egiaztatzeko. Behin muntaketa amaituta, enpresa instalatzaileak emandako muntaketa zuzenaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Aldi berean, Udaltzainekin adostu beharko da kontainerra eta aldamuen kokapena. Udaltzaingoak aipatutako baldintzak bete beharko dira:*

*a) Ibilgailuak pasatzen diren kaleetan aldamuek gutxienez 3 metroko zabalerako utziko dute galtzadan,*

*b) Aldamuen zutoinak ezin izango dira espaloitik kanpo jarri*

*c) Argi horiko balizak eguzkia sartu eta sortu bitartean piztuta egon beharko dira*

*d) Edukiontziak jaiegun eta jai bezperatan kendu egin beharko dira 15:00ak aurretik.*

*-Aldamioek eta bitarteko osagarriek pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko babes-elementuak izan beharko dituzte, bereziki oinezkoentzako babes-biserak, sareak, hesitzea eta seinaleztapena.*

*-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen eta 2177/2004 Errege Dekretuaren arabera egin beharko dira.*

*-Karga-igogailuaren instalazioak eta materialen igoera/jaitsierako eragiketek ezin izango dute oinezkoen edo ibilgailuen segurtasuna arriskuan jarri, eta beharrezkoa bada, maniobra puntualetan behin-behineko babes-neurri osagarriak ezarri beharko dira.*

*-Obra gauzatzean, ahal den neurrian, portalerako eta erabileran dauden lokalen*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*sarbidea bermatu beharko da.*

*-Obrak gauzatzean espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.*

*-Obrak dirauen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzan ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.*

*-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.*

*-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.*

***4.3.– Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak***

*-Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.*

*-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko teknikari eskudunen eskura.*

*-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hamabi hilabeteko epean amaitu.*

*-Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat eta ondoriorik gabe deklaratuko da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko betebeharra izango du, zehapena ohartarazita, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek Udalak gainbegiratuta egingo baitira.*

*Lizentziaren titularrak, bi epeetariko edozein amaitu baino hilabete lehenago gutxienez, epeok luzatu ahal izango ditu, atzerapenaren arrazoiak behar bezala bidezkotzen dituen eskabidea aurkeztuz.*

*Hala ere, luzapen hau ezinbesteko arrazoiengatik sortutako atzerapenen kalterik gabe emango da. Atzerapen horiek, nolanahi ere, behar bezala arrazoitu beharko dira idatziz Udalaren aurrean.*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*-Obrak irauten duen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako babeserako ordenantza bete beharko da, beraz, bertan ezarritako ordutegiak eta soinu mailak bermatu beharko dira.*

*-Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.*

*-Obra baimena aurkeztutako proiektu zuzenduan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, Udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.*

*-Proiektuak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko eraikuntza ordenantzen xedapenak errespetatu beharko ditu.*

*-Lerrokadurak errespetatuko dira.*

*-Eraikigarritasuna ezin izango da gainditu.*

*-Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.*

*-Baimena indargabetu egingo da bere menpeko baldintzak betetzen ez badira, eta baliogabetu egingo da haren emakida eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo, izan balira, ukatzea justifikatuko zuketen beste batzuk gertatzen direnean.*

*-Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.*

*-Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan dauden datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan zehar sor daitezkeen gorabeheren erantzulea ere. Kasu horretan, Udalari aldez aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera eta intzidentzia horien erantzuletzat joko da.*

*-Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da, babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.*

*-Lizentziaren titularra izango da obren ondorioz sortzen diren kalte guztien*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*erantzulea, eta ezin izango da udal baimena erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.*

*-Lizentziaren titularra izango da obrak direla-eta udal bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.*

*-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpean dauden kaleak garbi mantendu beharko dira. Horretarako partzelaren barruan hartuko dira neurri guztiak.*

***4.4.– Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa***

*Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:*

*-Obra amaierako ziurtagiri bisatua.*

*-Obraren azken likidazio bisatua.*

*-Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.*

*-Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.*

*-Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.*

*-Amiantoa duten hondakinak sortu badira, baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak.*

*-Instalazioak aldatu badira, dagokion instalatzaile baimenduaren ziurtagiriak.*

*-Eraikinaren eraberritutako egoeraren* **Energia Efizientziaren Ziurtagiria** *aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatua, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Izan ere, jarduketak eraikinaren inguratzaile termikoan eragin nabarmena du, energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeen bidez.*

*-Era berean, instalatutako SATE sistemaren eta estalki berriaren erabilera, mantentze eta kontserbazioari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, aplikatutako produktuen fitxa teknikoak, bermeak eta fabrikatzailearen mantentze-jarraibideak barne, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 7. artikuluan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.*

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*-112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan eta urbanizazio obretan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.*

*1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.*

*2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:*

*a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.*

*b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*

*c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.*

*-Behin betiko egoeraren argazkiak.*

***5. Ondorioak***

*Azaldutako guztia kontuan hartuta, teknikari honek aldeko txostena ematen du Bidebarrieta kaleko 12. zenbakiko Jabe Elkarteak sustatutako fatxaden birgaitze-proiektuaren estalkiaren birgaitzerako eranskinari dagokion obra-lizentzia osagarria ematearen alde, aurkeztutako dokumentazio teknikoaren arabera eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen menpe. Lizentzia osagarri honen xedea estalkiaren birgaitzerako eranskinean aurreikusitako jarduketak baimentzea bada ere, txosten honetan ezarritako baldintzak eraikinaren fatxadetan eta estalkian gauzatuko diren obra guztiei aplikatuko zaizkie.”*

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko abuztuaren 19an egin zen proiektu aldaketaren eskaera, aurreko proiektuaren eranskin bat balitz bezala, eta honakoak jasotzen ditu:

- BERUALAk emandako ziurtagiria.
- Idazki argigarria.
- Memoria.
- Planoak
- B Eranskina: Inguratzaile termikoarena.
- Interesdunaren eskaera.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko ekainaren 17an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, 2026ko ekainaren 22an.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikuluaren eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

210.7. artikuluaren arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikuluaren esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikuluak lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 12 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikuluaren arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia indarrean sartu baino lehen, aurreko lizentziarekiko honako fidantza gehigarri hauek aurkeztu beharko dira udalean:

**Fidantzak**

**Hondakinen kudeaketa**

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (271,85 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **326,22** eurokoa izango da.

**Urbanizazioan sor daitezkeen kalteak**

Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik ezarri beharreko bermea **659,70** eurokoa izango da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko abuztuaren 19an, Estibaliz Moreno Kerejazuk, Bidebarrieta 12 Jabe Elkartearen izenean, Bidebarrieta kaleko 12 zenbakiko eraikinean estalkiaren birgaitze-lanak egiteko obra-lizentziaren gehiketa eskaria **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

**Obra hasi aurretik bete beharrekoak**

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egitea, behar den moduan eta epean ordaindu beharko dena, baita Hondakinen Kudeaketako abala eratzea ere.

Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.

-Sustatzaileak obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

-Obren hasiera Udalari jakinarazi beharko zaio, eta zuinketa egiaztatzeko aukera eman beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.

-Zuinketa-akta eta obraren hasiera eskatu beharko dira. Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.

-112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.

-Jabari publikoa okupatu behar bada, dagokion okupazio-baimena modu independentean eskatu eta lortu beharko da. Baimen hori ez da obra-lizentzia honen barruan sartzen.

-Lizentzia ematen da, salbu eta jabetza eskubidea eta hirugarren baten kalterik gabe. Ezin izango da alegatu onuradunek beren jarduerak gauzatzean izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.

-Udalari jakinarazi beharko zaio obra lizentziaren titularitatean gertatzen den aldaketa oro, lehengo titularrak zein berriak sinatutako eskabide baten bidez. Titular berriak agiri horretan espresuki hartuko ditu bere gain lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Eskritura publikoan agertzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.

-Bermeoko HAPOak eta Alde zaharra birgaitzeko Plan Bereziak ezartzen duena errespetatuko da:

a) Eraikinaren fatxadaren konposizio estetikoa mantendu beharko da, hala, 62. artikuluak zehazten duen bezala, ez dira onartuko fatxadaren jatorrizko elementuak estaltzen dituzten tratamendu edo gainestaldurak, hala, iturri, armarri, moldura, markesina, zutoin, inskripzio, estuko eta eraikinak jatorriz dituen ezaugarrien bestelako adierazpideak mantendu egin beharko dira. Beraz, SATE sistema jartzerakoan eraikinaren moldurak eta elementu estetikoak errespetatu beharko dira. Adibidez, lehen solairuko forjatuaren moldura, fatxada nagusiko leihoak batzen dituen moldura, fatxada planoko miradore ondoko marrak etab.

b) PVCzko zorrotenak eta kanaletak margoztu egin beharko dira, fatxadaren koloreak erabiliz.

c) Arotzeriari dagokionez, egurrezko forratuak eta estalki hegalak ezin dira barnizatu, margoztu egin behar dira.

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

d) Barandillak mantendu egin beharko dira eta eraberritzekotan, tratamendua eman ondoren kolore beltzarekin margotu beharko dira, eraikineko jatorrizko eraikuntzako ereduari jarraiki berriztatuko dira, jatorriz erabilitako material berdinez eta konposizioko orduko diseinua aintzat hartuta.

e) Ezin izango da altzairu herdoilgaitzezko materialik erabili.

-Fibrozementuzko plakak kentzeko lanak amiantoa duten materialak manipulatzeko baimendutako enpresa espezializatu batek egin beharko ditu. Obrak hasi aurretik, hala badagokio, dagokion Lan Plana aurkeztu beharko da, Lan Agintaritzak onartua, amiantoaren esposizio-arriskua duten lanetarako aplikatzekoa den araudiaren arabera.

**Obra gauzatzeko baldintza teknikoak**

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio.

-SATE sistemaren akabera-materialek, CTE DB-SI dokumentuko SI 2 atalean ezarritakoaren arabera, fatxada-sistemetarako aplikagarriak diren suarekiko erreakzio-baldintzak bete beharko dituzte.

-Fatxadan dauden gas-instalazioen, hornidura-hodien eta gainerako instalazioen desmuntaketa eta berriz muntaketa enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, dagokion araudi sektorialaren arabera.

-Gas-hodiak, hornidura-hodiak, zorrotenak eta fatxadako gainerako instalazioak berriz jartzean, trazadura ordenatua, lerrokatua eta mantentze-lanetarako irisgarria bermatu beharko da.

-Obra gauzatzeko aldamioak instalatu behar badira, instalatu aurretik teknikari eskudunak sinatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, instalatu beharreko sistemaren egokitasuna eta segurtasuna egiaztatzeko. Behin muntaketa amaituta, enpresa instalatzaileak emandako muntaketa zuzenaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Aldi berean, Udaltzainekin adostu beharko da kontainerra eta aldamuen kokapena. Udaltzaingoak aipatutako baldintzak bete beharko dira:

a) Ibilgailuak pasatzen diren kaleetan aldamuek gutxienez 3 metroko zabalerako utziko dute galtzadan,

b) Aldamuen zutoinak ezin izango dira espaloitik kanpo jarri

c) Argi horiko balizak eguzkia sartu eta sortu bitartean piztuta egon beharko dira

CSV: 07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016C01200X8V3P1T4K7Y5

Sinadurea eta datea
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 03/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/07/2026 15:59:22

DOCUMENTO: 20261490962
Datea: 06/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

d) Edukiontziak jaiegun eta jai bezperatan kendu egin beharko dira 15:00ak aurretik.

-Aldamioek eta bitarteko osagarriek pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko babes-elementuak izan beharko dituzte, bereziki oinezkoentzako babes-biserak, sareak, hesitzea eta seinaleztapena.

-Aldamioaren muntaketa, erabilera eta desmuntaketa UNE-EN 12810 eta UNE-EN 12811 arauen eta 2177/2004 Errege Dekretuaren arabera egin beharko dira.

